

OIHENARTEN EUSKAL PROSODIA

Patxi ALTUNA

1. Gure artean ia mundu guziak dakien bezala, Oihenartek orduartekoa ez bezalako poesigintza sortu nahi izan zuen euskaraz. Hobeki esan: orduartekoa ez zen poesigintza haren ustez, bertsogintza baizik, etxerako eta etxe atarirako egokia, baina Europan inori erakusteko traketsa. Horregatik nahi izan zuen sortu euskaraz zinezko poesigintza, ikasia, landua, dotorea, Europako hizkuntza trebatuek ontzen zutena bezalakoa, Europan barrena inongo lotsarik gabe erabiltzeko modukoa.

Hiru liburutan barreiatu eman zigun apurka eta zatika aditzera bere teoria. Lehen apurrak «Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae» izenekoaren bigarren edizioari (Paris 1656) berretu zion «De syllabarum quantitate» (72. or.) delako ataltxoan banatu zituen; bigarrenak 1657an argitaraturiko «Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur» liburuaren bigarren zatiak dakarren hitzaurretxoan; hirugarrenak duela juxtu hogeitabost urte (1967 urria) aita Lafittek behin *Gure Herria* aldizkarian eta gero separata gisa emanikoan ezagutarazi zigun inoiz argitaratu gabeko «L'Art Poétique Basque»-n (1665).

Azken argitaraldi hau dotoreki aberastu zuen aita Lafittek aitzinsolas batez eta hiru eraskinez horniturik. Hauetan hirugarrenak titulu hau du: «L'accentuation labourdine au xviiè siècle selon l'*Etorquia* de Pierre d'Urte» (43. or.). Mitxelenak bere aldetik 1971eko *Fontes*-en «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos» izeneko artikuluan bost orrialde (158-163) eskaintzen dizkio Oihenarten azken izkribu honi. Batak ez besteak ez dute nahi izan, ene ustez, Oihenarten dotrina osoro eta xeheki azaldu, eta hala ez dituzte aintzakotzat hartu hitzaren azentuan eraginik ez zuten haren irakatsiak, hiru silaba baino gutxiagoko hitzei buruz emanak. Haien ekarria pixka bat osatzeko asmoz ekin diot neure lan honi, asmatzeko segurantza handirik gabe, halere. Esan gabe doa, bestetik, Lafonek ez zuela Oihenarten azken izkribu hau ezagutu, argitara zeneko hila baitzen.

Oihenarten poesigintza berrira itzultzen garela, diogun bertsoen azalari begiraturik bi arrazoigatik bederen iruditzen zitzaiola gure herri-bertsogintza narrasa, zarpaila, Europako poesigintza landuarekin berdinduz gero: bat, elisio edo sinalefaren bat egiteko aukera bertsoak eskainirik ere, egin edo ez egin poetaren esku uzteagatik; bi, gehienetan errima edo puntua arrunt exkaxa, ahula, pobrea erabiltzeagatik. Zabarkeria hutsa iruditzen zitzaion bata eta bestea, gehiegizko lasaikeria.

Azalaz gainera bertsoen muinak ere bazuen haren ustez zer apain eta zer eder. Mitxelenak idatzi zuen legez, hark sortu nahi izan zuen poesiak behar zuen izan «sabria por los metros, por los «conceptos» y por las alusiones»¹. Baina ez da azken hau gaur guk aztertu nahi dugun gaia, ezpada bertsoen itxurarekin eta azalarekin, berariak puntuarekin, zerikusi duena.

2. Silaba eta erdikoa nahi izan zedin puntua eta berak halakoa erabili zuen beti, inoiz huts egin gabe. Ez hori eta ez elisio-sinalefen beste legea ez zituen Oihenartek bere baitatik atera, inguruko hizkuntza erromanikoen usarioa zen eta da hori, hitzak izanez gero, euskaraz ia guziak omen diren bezala, «llanas» deitzen direnetakoak. Cupidarik gabe aitortzen du berak hori, eta behin eta birritan aipatzen ditu gaztelera, italiara eta batez ere Erdi Aroko latina, euskarak bereganatu behar lukeen errima motaren eredu.

Horietan ba omen dira bertso harrak eta emeak, baieta bertso irristakorrak —hala derizte berak, «glissans»²—. Bertso harrak omen dira hitz harrez amaitzen direnak; bertso emeak hitz emez amaitzen direnak, eta irristakorrak, berriz, hitz irristakorrez amaitzen direnak. Eta zer da hitz harra eta hitz emea, eta zer hitz irristakorra? Oso gauza ezagunak, izenak berak izan ezik. Harrak azentua azken silaban dutenak, oxitonoak deituak; emeak azentua azkenurreko silaban dutenak, paroxitono direlakoak; irristakorrak, aldiz, azentua hitzaren —hiru silaba bakarrik edo gehiago dituenaren— azken hirugarren silaban dutenak, proparoxitonoak izendatuak.

Horrenbestez edozeinek daki gazteleraz, esate baterako, nolako puntua zor zaion bertso azken hitzari. Honen azentuak agintzen du hori. Azentua daraman silabaren bokaletik hasi eta hitzaren kaburaino izan behar dute berdinak bokalek eta kontsonanteek. Hitz emez amaituriko bertsoez ari naiz, noski, eta ez dut kontuan hartzen puntua asonantea izan daitekeela, Oihenartek ere ez baitu hartzen euskararako.

Euskal bertsoak ontzean zein metodoz baliatzen zen galdetuz eskutitza egin omen zion³ Lapurdiko apaizak ere badaki iadanik ZER diren bertso emeak eta gainerakoak, baieta ZER diren hitz emeak eta besteak, baina oraindik

¹ Michelena, Luis, *Historia de la literatura vasca*, Madrid 1960, 75. or.

² Oihenart, Arnaud, *L'Art Poétique Basque*, tirage à part de *Gure Herria*, 1967, 15. or.

³ *ibid.*, 15. or.

gauza bat jakitea falta du, zailena, Oihenarten gogoko euskal bertsoak egiten hasteko guztiz nahitaezkoa: ZEIN dira euskaraz hitz harrak, emeak eta ZEIN irristakorrak? Zein silabatan darama hitz bakoitzak azentua? Zein da, bestela esan, Euskal Prosodia?

Inork jakitekotan Oihenartek daki hori edo jakin uste du bederen. Ez zen alferrik zuberotarra eta ez zen alferrik zubereraz mintzatu haurretandik. Eta Lafonek, Lafittek eta Mitxelenak aho batez irakasten digutenez zuberera da, baldin batere bada, beti erregelek aginduriko lekuan azentu tonikoa gordezten duen euskalkia. Hona Lafonen hitzak: «...il ne possède pas, sauf dans le dialect souletin, un accent tonique dont la place soit fixée par des règles»⁴.

3. Hasteko Oihenartentzat euskal hitz guziak azentuari dagokionez bi sail handitan bereizten dira: a) Azken silaba luzea dutenak, eta b) Azken silaba laburra dutenak.

Notitia-ren bigarren edizioko atal txiki eta berri —lehen edizioan ez baitago— «De syllabarum quantitate» izendaturikoan irakasten digunaren arabera badakigu, lehenbizikoak euskaraz bi eratakoak izan daitezkeen arren, oro harturik ere ez direla asko, zeren aitortzen baitigu batzuk, azken silaba ez ezik azkenurrekoa ere luzea dutenak (- -), *espondeo* deituak, alegia, gutxi dituela euskarak, eta besteak, azkena luzea baina azkenurrekoa laburra dutenak (v-), edo *ianboak*, ia batere ez, ondoren esateko: «(...no admite)...los masculinos terminados en yambos, de los que carece esta lengua».

Egia esan, beste leku batean dioenaren arabera ez dirudi berak nahi bezain gutxi direnik; are askotxo direla aitortu behar, baina hori beste kontua da eta bere lekuan argituko dugu. Gutxi izan, asko izan, ez ditu inondik ikusi nahi euskal bertsoaren azken kabuan: ez ditu maite —«Se diría que trata de eliminarlas»⁵—, ez ditu behar bere poesigintzan. Eta arrazoia garbi dago: harrak izanik ezin onar dezakete silaba bateko puntua baizik, eta horri gutxiegi deritza Oihenartek.

Bigarren sail handiak ere, hots, azken silaba laburra omen dutenenak, bi eratako hitzak besarkatzen ditu; hau ordea oso ugaria da, hain ugaria non hor sartzen omen baitira ia euskal hitz guziak: «...attendu que leurs mots sont presque tous ou féminins, ou glissants, ou communs, y en ayant tres peu de masculins»⁶. Batetik, azkena laburra baina azkenurrekoa luzea dutenak, (-v), *trokeo* deritzenak, Oihenartentzat *eme* direnak, besarkatzen ditu. Horiek ditu poetak maiteenak, silaba eta erdiko puntua baitagokie bete-betean. Bestetik, azkena bezala azkenurrekoa ere laburra dutenak. Baina hauek bere aldetik

⁴ Lafon, René, «Sur la versification de Dechepare», BRSVAP, XIII (1957), 389. or.

⁵ Michelena, Luis, «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», FLV, nº 8, 1971, 161. or.

⁶ *L'Art Poétique Basque*, 31. or.

bitarikoak dira: zeren, azkenaurrekoa ere laburra izanik, izan bailezakete azken hirugarrena edo luzea (—vv), eta horiei *daktilo* derizte, edo laburra (˘˘), azken hirurak laburrak alegia, eta horiei *tribrakoak* deitzen zaie.

4. Hori horrela da teoria hutsean, baina gero praktikan, «Si asimilamos» —Mitxelenak dioen bezala— «cantidad a acentuación, como hace Oihenart con toda consecuencia»⁷, tribrakoak ez dira gehiago tribrako izango, ene ustez, baizik nahitaez daktilo bilakatuko, zeren izanik irristakorrak, hau da esdrujuoak, berez laburra duten lehen silaba luzatuko baitzaie, tonikoa delakoxe. Latinez ez da horrelakorik gertatzen, jakina. Latinez hitz bat esdrujuola izanagatik, baldin azentua daraman azken hirugarren silaba berez laburra bada, labur izaten jarraituko da. Hala nola *homine, volumus, opere* eta, baldin hiru silaba baino gehiago baditu, gauza bera: *specimine, voluerimus*.

Hori bakarrik ez. Ikusi batera ez da agiri nola balio liezaioketen Oihenarti horiek, hain daktiloek zein tribrakoek, silaba eta erdiko punturako, zeren izanik irristakorrak, «Ce genre de uers pour estre parfait demande encore plus de rime que ne font les feminins, c'est a savoir trois syllabes, ou pour le moins, deux et demy»⁸. Alegia, horiek berez bi silaba eta erdiko puntua eskatzen dute, ez silaba eta erdiko bakarrik.

Baina badu horrek bere itzurbidea eta bitarikoak gainera. Ez zaigu ahaztu behar, batetik, Oihenartek bi lehenbiziko liburuetan ez bezala, *L'Art-en*⁹ erakutsi zigula zenbait hitzek azkenaurreko silaba dudamudazkoa edo zalantzarikoa, *anceps* alegia, dutela, poetak luzetzat nahiz laburtzat har dezakeena. Beraz hitz horietako asko, berez irristakorrak izanagatik, eme bihurtzea poetaren esku dago; aski du horretarako azkenaurreko silaba luzetzat hartzea.

Hori baino gehiago. *L'Art-en* berean hitz irristakorrei buruz hor goian aldatu duguna kontatu ondoren, aurreraxeago erakutsiko digu hori berez horrela izanik ere, latinez bertsoak egin zituztenek berek legea leundu zutela praktikan: «Il faut neantmoins observer qu'a cause de la difficulté qu'il y a de trouver une rime de trois syllabes, ou mesme de deux syllabes et demy, requisite aux vers glissans, la plus part des rimeurs latins se sont contentés d'employer une syllabe et demy tout ainsi qu'aux feminins»¹⁰. Alegia, bi silaba eta erdiko puntua betetzen hain zaila zelako, emeak balira bezala silaba eta erdiko puntua eginez erabili izan zituztela. Eta inon aitortzen ez duen arren, bere Neurtitzen azterketak erakusten digu berak ere beretzat lege leundu hori hartu zuela eta berak irristakorrak direla esandako hitzak bertsoaren kabuan silaba eta erdiko puntuaz erabili zituela gehienetan, ikusiko dugun bezala.

⁷ «Descubrimiento y redescubrimiento...», 162. or.

⁸ Oihenart, Arnaud, *L'Art Poétique Basque*, 19. or.

⁹ *ibid.*, 34. or.

¹⁰ *ibid.*, 21. or.

'5. Heldu gara azkenik jakiteko puntura zein neurritako silabak dituen Oihenarten ustez hitz bakoitzak, nahitaezkoa baitugu hori, baldin haren gogoko bertsoak tolestatu nahi baditugu: zeren bestela gutxiena uste dugunean uztartuko baititugu elkarrekin, Oihenarten haserrea geureganatuz, bertsoaren bukaeran ezin uztar daitezkeen harrak eta emeak, bertso hauetan bezala:

Asetzen ez naute ni
munduko atseginek,
hala dio sarritan
gure Serafinek

gazteleraz batek «descaro» eta «declaró» errimaraziko balitu bezala. Edo zeren aterako baitiegu hitz harrei, harrak direla eta silaba bakarreko puntua baizik onartzen ez dutela ohartu gabe, bi silabako puntua, Oihenartek agindua-
ren kontra, beste bertso hauetan bezala:

Zuk ez uka laguntza
eske datozenei,
ez eta ken ogia
goseak daudenei.

Horiek horrela direla, eta gehiago luzatu gabe, bil ditzagun hemen laburki zenbait hitzen azentuari igertzeko ematen dituen arauak —lauzpabost dira danera—, hauei buruz gogoeta batzuk egitea geroko utziaz:

a. Hiru silabako hitz *-ra*, *-rik*, *-ko* kasu markez amaituak irristikorrak omen dira, «les deux dernières syllabes breues et l'antepenultième longue» baitituzte, *hárzera*, *hárturic*, *hárzeco* ahoskatzen omen direlako¹¹.

b Aldiz hiru silaba baino gehiago dituzten hitzetan ez omen da hala, «hauetariko zenbaitek» —ez dio zeintzuk bai eta zeintzuk ez— azkenurreko silaba dudazkoa omen dutelako, hala nola *erostera*, *erossiric*, *erossico*; *erabiltera*, *erabiliric*, *erabilteco*; hauetan azken hirugarren silaba ez omen baita bi azkenak baino luzeagoa, baizik hirurak kantitate berekoak; hori dela eta, azkenurreko silaba poetak luzetzat nahiz laburtzat har omen dezake, bere gogara, eta hitz hartaz balia omen daiteke bertso emeetan nahiz irristikorretan¹².

c. Ba omen da hiru silabako beste hitz mordo bat lehengoek bezala azkenurreko silaba neutroa duena, luzea nahiz laburra: hala nola, honako nominatibo singular mugatu «ia guzti hauek»: *errea*, *iossia*, *iaucia*, *buria*, *beguia*, *erzea*, *lucea*, *ioaita*, *hilzea*; baieta berorien «ablatibo singularrak»: *erreas*, *iossias*, *burnas*, *beguias*, etc.¹³.

d. Ez omen da berdin plural mugatueta, hauek azken silabak luzeak omen baitituzte: *gauçéc*, *guiçonéc*; *gauçén*, *guiçonén*; *gauçér*, *guiçonér*; *gauçés*,

¹¹ ibid., 34. or.

¹² ibid., 34. or.

¹³ ibid., 35. or.

guiçonés. Salbuespen bat seinalatzen du, haatik: nominatibo pluralek ez dute azken silaba luzea¹⁴.

e. Aitzitik genitibo eta datibo singular mugatuek azken silaba laburra eta azkenaurrekoa luzea omen dute, *guiçonáren*, *guiçonári* ahoskatzen omen direlako¹⁵.

6. Arau bakoitza aztertzen hasi baino lehen, dagigun zenbait gogoeta guziak erabat harturik. Ematen dituen legeak horiexek dira, edonondik begiratzeko zaiela arras exkak, horiek besarkatzen dituzten hitzak euskal hitz guziekin gonparaturik eskumen bat baizik ez baitira. Alde horretatik irakurlea etsiturik gelditzen da hain arau gutxi aurkitzean. Baina ez zaigu ahaztu behar Oihenart hor bere buruari egin dion, edo hobeki esan, Lapurdiko apaizak seguruenik egingo omen dion —«Vous me demanderés peut estre»— galdera konkretu honi erantzuten ari dela: «quels sont ces mots glissants et quels les communs de nostre langue»¹⁶, eta ez emeak zein diren.

Bistan da, izan ere, Oihenartek hor ez digula irakatsi nahi zein den euskal hitzek Hiztegian agertzen diren bere sarrerako edo lemako forma biluzian duten azentua. Horietarik ia guziak emeak direla jakintzat ematen du eta Lapurdiko apaizari ezaguntzat. Irakatsi nahi diguna da zein den ia beti beretzat emeak diren hitz horien zenbait adizkiren eta forma deklinaturen azentua. Bestela esan, nondik ateratzen diren *Notitia*-n aipatu dizkigun irristakorrek, direla distikoak direla tribakoak. Eta hala bost arauetatik hiru lehenek irristakorren etorkia agertzen digute, aldi berean adieraziz horietatik zein diren azkenaurreko silaba dudazkoa dutenak; eta ondoko bi arauak saskiko gereziak bezala aurreko arauetara lotuak daudelako atera dira eta ez apaizaren galderarekin zerikusirik dutelako.

Esan dugu kontuan hartzen diren hitz guztiak zenbait aditz nominalizaturen eta zenbait izenen deklinabideko —ez hiru deklinabideetako— zenbait forma direla, besterik ez. Erabat isiltzen da deklinabide mugagabe osoa, baieta hiru deklinabideetako kasu inesiboa, eta hala jakin gabe gelditzen gara ea inesibo hauentzat, *errean*, *iossian*, *buruan*, *beguian*, eta abarrentzat ere balio duen ala ez *c.* arauan kasu ablatibo delakoaz esan digunak: hots, azkenaurreko silaba luzea nahiz laburra dutela.

Bestalde pluraleko inesiboari badagozkio, ez dugu uste, nominatiboa salbu pluraleko kasuentzat esan duenak, alegia azken silaba luzea dutela, horrentzat balio duenik eta *gauçetán*, *guiçonetán* inondik ere ahoskatu behar denik; baizik gure ustez bere esanpluek iradokitzen digutenez honela: *gauçétan*, *guiçonétan*, aipatzen dituen *gauçéc*, *guiçonéc* eta abarrek duten silaba berean azentua

¹⁴ *ibid.*, 35. or. Leizarragaren «Ecen baldin cecenén eta akerrén...» (Hebr. 9,13) hura gogorazten digu Mitxelenak («Descubrimiento...», 160. or., 21. oinoharra).

¹⁵ *ibid.*, 35. or.

¹⁶ *ibid.*, 34. or.

ipinirik. Mitxelenak ere hala uste du: «El acuerdo esencial entre todos los testimonios, incluido el de Leizarraga en el siglo xvi, están (sic!) en la acentuación columnal del definido plural en los casos oblicuos: temas *gizoné-*, *gerren-*»¹⁷. Baina Oihenartek ez digu esaten, damurik, hala den ala bestela. Halere VI. neurtiztean irakurtzen dugun bertso honek

Esta maitesco gausetan
Haurren borx' ahalic hetan,

eta hori bezalako gehiagok erakusten bide digute Oihenartek *gausétan* ahoskatu duela, silaba eta erdiko puntua baitu. Eta mugagabeokari dagokionez ere isiltasun bera salatu beharrean gaude, ondoko lerroetan xehekiago azaltzen dugun legez.

Azken honi buruz Mitxelenak zerbait ikasi uste du Oihenartek berak egina eman zigun¹⁸ «Lauda, Sion, Salvatorem» eliz kantuaren lehen ahapaldiaren itzulpenetik. Honela dio: «No es éste el momento de entrar en el fondo de la cuestión, pero vale la pena de insistir en que, para Oihenart, la declinación indefinida tenía en suletino, al menos en algún caso local, el tipo de acentuación que Kurylowicx, tomando el término de Saussure, ha llamado «columnal»: el acento, en otras palabras, caía siempre en la misma sílaba, contada a partir del comienzo de la palabra: aquí, en ortografía moderna, *khantóretan*, como *khantóre* “hymnus” y *kóblatan*, como *kóbla* “canticus”, y *ehólatan*, sin duda con *e* nasal, “de alguna manera”, de *ehóla*». Eta susmo berean sendoturik agertzen da «sobre todo porque su comentario de la canción de Andre Emilia supone una acentuación *sáritan*, *hánditan*, *éztitan*, que coincide con la anterior...»¹⁹.

Hala da, bai, baina hala al da beti edozein moldetako nominatibo mugagabeekin? Oihenarten itzulpenetik harturik Mitxelenak hor aipatzen dituen hiru hitz —*khantóre*, *kóbla*, *ehóla*— eta Andre Emilia-ren kantuko beste hiru —*khantóre*, *sari*, *handi*, *ezi*— bokalez amaituriko horietan betetzen omen den azentu lege «columnala» delakoa, betetzen al da horiek inesiboan hartzen duten *-tan* silaba bakarra gabe bi silabako *-etan* hartu beharko luketen kontsonantez amaituriko *bíhotz*, *górputz* eta abarretan ere? Bestela esan: nominatibo mugagabea *bíhotz*, *górputz* dela eta, inesiboa (*bost*) *bíhotzetan* izango al litzateke, edo (*bost*) *górputzetan*? Ezetz uste dugu.

7. Azter ditzagun orain arauak xeheki eta banaka. Lehenak irakasten digunak baditu dudamudazko alderdiak. Bat: hiru silabako «hitzez», edozein hitzez, ari da araua, antza, («Les mots trysillabes»), nahiz gero aditz nominalizatuen exenplua —*hárzera*, *hárturic*, *hárzeco*— bakarrik ematen duen. Bada hona

¹⁷ Michelena, Luis, «Descubrimiento...», 160., or.

¹⁸ Oihenart, Arnaud, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*, 2. ed., 73. or.

¹⁹ Michelena, Luis, «Descubrimiento...», 159. or.

lehen galdera: exenplua gorabehera, gainerako hitzentzat ere balio al du arau horrek? Alegia, *etxera*, *etxerik*, *etxeko*; *mendirira*, *mendirik*, *mendiko* eta antzekoak ere esdrujuloak al dira, eta lehen silaba luzea eta beste biak laburrak al dituzte?

Bi: *hárzera*, *hárturic*, *hárzeco* direlakoak zergatik dute lehen silaba luzea: azentua silaba horretan daramatelako soilik, ala beste arrazoiren bategatik, hala nola silaba trabatua delako? Lehenagatik baldin bada, hiru silabako beste hauek ere, *jatera*, *jaterik*, *jateko*; *üitera*, *üiterik*, *üiteko*, esdrujuloak direnez gero, lehen silaba luzea izan behar, nahiz trabatua ez izan. Bai? Eta gauza bera gertatuko zaie, hortaz, lehen silaba irekia duten *begira*, *burura*, *ohera*, *atera*, *begitik*, *burutik*, *ohetik*, *atetik* eta gainerakoei, baldin aditz nominalizatuentzat bakarrik ez, baizik guzientzat bada araua.

Bigarren arauari buruz ere galdera berak egin behar ezinbestean. Lehen: Hemen ere exenplutzat aditz nominalizatuak soilik aipatzen dituen arren — *erostera*, *erossiric*, *erossico*; *erabiltera*, *erabiliric*, *erabilteco*—, gainerako izen arruntentzat ere balio al du hor dioenak, hemen ere «des mots qui ont plus de trois syllabes» baititu ahoan, eta ez adizkiak soilik? Alegia, *arimara*, *arimarik*, *arimako* edo *elizara*, *elizarik*, *elizako* eta hauen antzekoek ere azkenaurreko silaba dudamudazkoa al dute eta hitz emetzat nahiz irriskortzat har al ditzake poetak? Bigarrena: *erostera*-k eta *erabiltera*-k azkenaurreko silaba laburtzat hartu eta azken hirugarrena luzea dutela ez zaigu sineskaitz egiten, silaba trabatuak baitira bienak — *-ros-* eta *-bil-* —, baina gauza bera gertatzen al zaie *iakitera*, *edatera*, *egitera* eta abarren bezalakoen silaba ireki diren *-ki-*, *-da-* eta *-gi-ri*?

Hirugarren arauan aipatzen diren hitzei buruz honela idatzi zuen Mitxelena: «Todos los ejemplos terminan en *-ia* o en *-ea*, *-ua*, que ya se habían convertido en suletino en *-ia*»²⁰. Hor bertan dugu lekuko bat: *buria*. Beste bat lehen neurtitzean, non *negui* *vda* irakurtzen baitugu, hots *neguia* (< *negia* < *negua*). Nik neure aldetik hauxe erantsiko nioke Mitxelenaaren esanari: hiru sail (*-ia*, *-ea*, *-ua*) horietakoxe hitzak dira Etxeparek, komeni zaionean eta gogoak emanez gero, silaba batez labur ditzakeenak, mugatzailearen aurreko bokala bokalerdi eginez; eta geroko bertsolari baxenafar eta zuberotar guziek ere bai, mundu guziak ezagutzen duen hau bezalako bertsoa —«Txoriak bere umeak baino»— zortzi silabaz, eta ez hamarrez, neurtu ahal izateraino. Beraz ez da harritzeko Oihenartek mugatzailearen aurreko hiru bokal (*-i-*, *-e-*, *-u-*) horiek nominatiboan eta guk instrumentala ohi deritzagun kasuan (bakarrik? ala inesiboan ere bai?) *anceps* direla irakastea.

Laugarren arauak irakasten digu pluraleko kasu guziek, nominatiboak izan ezik, azken silaba luzea dutela. Bestela esan: euskal hitz guzien pluraleko *-ek*, *-en*, *-ez*, *-ei* —zubereraz *-er*— atzizkiz bukatu-rik forma guziak harrak

²⁰ *ibid.*, 162. or., 24. oinoharra.

direla. Hau ez dator ongi, bere lekuan esan genuen bezala, euskarak *espondeo* gutxi eta *ianbo* ia batere ez omen zuelako beste dotrina harekin. Halere Mitxelena nahi du Oihenarten agiriko kontraesan hori nolazpait zuritu eta honela dio: «La aparente contradicción podría salvarse interpretando las palabras de Oihenart en el sentido de que, para él, sí había palabras oxítonas en la lengua, aunque pocas, pero que no creía aconsejable emplearlas en final de verso, para efectos de rima»²¹.

Baina ez dakit horrek kontraesana salbatzen duen, zeren, baldin pluralei buruz dioena egia bada, ez baitira euskal hitz harrak gutxi batzuk («aunque pocas»), ezpada milaka. Ondoren dioena, bai, egia da, hots, asko izan edo gutxi izan, Oihenarti ez zitziola inori gomendatzeko moduko gauza iruditzen haiek bertsoaren kabuan erabiltzea; baina horretarako ez zeukan esan beharrik euskaraz ez zela ia batere hitz harrak: askotxo zirela baina, ez erabiltzea agintzen zuela eta kito. Haren esana egin ez dudalako dira, hain zuzen, Oihenarten ustez okerrak neronek asmatu hor goian txertatu ditudan bertsoak; zeren *atseginek*, *datozenei*, *daudenei* pluralak, eta hainbestez harrak, izanik ere, emeak balira bezala silaba eta erdiko puntuaz errimarazi baititut.

Eta Oihenartek berak zer? Baldin uste bazuen —eta hala uste zuen, noski— ez zela inori kontseilatzeko moduko gauza hitz harrak bertsoaren kabuan ipintzea, berak izan behar zuen aurrena haiek ez erabiltzen, bera ere bera baino lehenagoko poetei egotzi zien bekatu berean —«vitium non ferendum»—, baina alde erantzizkoan, eror ez zedin: haiek hitz emeak har bezala erabiliz eta Oihenartek hitz harrak eme bezala hartuz. Egin al zuen inoiz edo behin horrelako irristaldirik? Nik baietz esango nuke. Hona ale batzuk, non letra larriz idazten baititut plural direlako azken silaba luzea omen duten hitzak:

Edo berur' ene PENEZ
 Nozpait kexa laiteenes (VII, 17-18)
 Berrizen ar' is, Churia,
 Nitan egun GUSIES
 Noisten BEGUIES
 Eguin erautan sauria (IX, 1-4)
 Nangoenean noispait vdalen
 Andreac, suen alhor SABALEN (XVII, 76)
 Sein apaindu baizenduen
 Arguizat, herri BILDUEN
 Beguitart' aizinean (XXI, 7)

Eta silaba eta erdiz errimarazi zituen, halere, emeak balira bezala. Hori ere ez al da «vitium non ferendum?».

²¹ *ibid.*, 161. or.

Bosgarren arauaz ez da zer esanik, hau izan ezik: gaur ere, eta hegoaldeko euskalkietan ere bai segurki, genitibo-datibo singular horiek emeak direla.

8. Honenbestez balirudike Oihenarten irakatsiak euskal prosodiaz ahituak direla, haren arauak ez baitira bost baizik. Baina ez da hala. Bost arau dira, bai, hitzaren azentuan eragina dutenak, bi silaba baino gehiago, dituelako hitzak; baina hor daude gero Haranbururen bertsogintzaz ari delarik bi silabako eta silaba bakarreko zenbait hitzen azentuaren gainean ezarian-ezarian ematen dituen iritziak. Hauetan azentuak ez baina beste zerbaitek egin lezakeela silaba bat luze edo labur, latinez bezalaxe, irakatsiko digu Oihenartek.

Haranbururen *Devocino escuarra*-k bigarren edizioan²² dakarren «Çazpi salmo penitencialac» direlakoen itzulpenak ematen dio bide honen metodo proposa goraiatzeko —«est le seul, entre ceux qui ont fait publier de rimes basques, qui a tenu la bonne methode»²³—, tolestatu omen baititu launako ahapaldietan zortzi silabako bertso emeak eta zazpiko irristakorrak txandaka, eta zer esanik ez, silaba eta erdiko puntua eginez. Laster dario ordea lantua eta keixua: «hobe zukeen gorde», dio lehenik gutxi gorabehera, «itzulpen guzian barrena puntu aberats hori, askotan ez baitu egin»; eta gero beste hau: «-eta berebat ez kokatu inoiz bertso irristakorren kabuan bi silabako hitzik, lehen silaba luzea duenik». (Beraz bertso irristakorren kabuko hitzek azkenaurreko silaba luzea eta, halere, hitz eta bertso irristakorrak horiek? Nolatan? Zer irristakortasun da hori? Oraino ez ezaguna, horratio!).

Puntu horretara iristean, bigarren erru hori dagiten bertso batzuk aipatzen dizkigu eta esaten zein diren beraien amaieran agertzen diren halako hitz aldrebesak: *colpe*, *latça*²⁴, *aiher*, *hurco*, *turco*, *Iainco*, *nôla*, *lurra*: «tous lesquels mots ont leurs premieres syllabes longues»²⁵. Ez da zaila igertzen zergatik duten Oihenarten ustez hitz horiek lehen silaba luzea: batzuek silaba itxia dutelako, hala nola *colpe*, (*latça*), *hurco*, *turco*, *lurra*: beste batzuek diptongoa dutelako: *gaitça*, *aiher*, *Iainco*. Zailagoa de asmatzen zergatik duen luzea *nôla*-k, baina ez lirakeke arrazoiak faltako²⁶.

Ez digu ordea hori bakarrik irakasten. Hor bertan esaten digu gainera lehen silaba luzea omen duten bi silabako hitz horiek aurrean, zeinek bere

²² Oihenartek honela dio *L'Art*-en 35. or.: «Le Père Haramburu [...] a tenu la bonne methode en la paraphrase des sept pseumes penitentiaux insérés en la seconde edition de son Escuarra...». Oihenart 1667an hil baitzen, Haranbururen (*Devocino*) *Escuarra*-ren bigarren edizio horrek nahitaez lehenagokoa izan behar. OEH-n badute lehen edizioaren (1635) testu osoa, ez ordea bigarrenarena; lehen horrek ez dakar *Zazpi salmo penitenzialen* itzulpena, hau bigarren edizioari gehitu baitzion autoreak, Oihenartek dioskun bezala.

²³ Oihenart, Arnaud, *L'Art*..., 35. or.

²⁴ *Latça* ez baina *gaitça* amaieran duen bertso bat, bai, aurkitu dut.

²⁵ Oihenart, Arnaud, *L'Art*..., 36. or.

²⁶ Niri hau iruditzen zait bat, Oihenarti hala pentsarazi ziona: galde hitzaren *no- erroa zubereraz diptongoa duelarik ere bai baita —ikus bere Neurthizetan *ehoula* (II,51), *noura* (III,46) eta *ehoun* (<ehon < enon < non) (IV,40)—, latinezko, besteak beste, pentsamoldeaz (*loucus* > *lucus*) uste zuen diptongotik sorturiko bokal bakunak luzea izan behar zuela.

bertsoan, silaba laburra dutela: «et sont precedes par des syllabes breues». Beraz honelako, v-v, amaiera duten bertsoak dira, «nahiz eta bertso irristakorretan bi azken silabek laburrak eta azken hirugarrenak luzea izan behar duten»: «au lieu quaux vers glissans les deux dernieres syllabes doiuent estre breues et l'antepenultime longue»²⁷. («Hortaz ez dira irristakorrak», izango litzateke nornahik aterako lukeen ondorioa. Baina Oihenartek ez).

9. Hemen lehen ez bezala aurreko silaba labur horiek zein diren ikasteko gogoaz largatzen gaitu Oihenartek, ez baitigu esaten, eta jakiteko bide bakarra Haranbururen liburura jotzea dugu. Donostiako Diputazioko liburutegian bada liburu honen ale bat²⁸. Egia esan, Oihenartek bertso horientzat ematen dizkigun orrialde zenbakiak eta Donostiako alearenak ez datoz bat —Oihenarten 253. orrialdea ale honetako 207. da—, baina ez zaio axola; erraz aurkitzen dira hark aipatzen dituen bertsoak, zeren orrialdeen gainaldeari eskerrak bai baitakigu zein orrialdetako bertsoak diren *Zazpi salmo penitenzialen* itzulpenak. Hona bada hor goiko bi silabako hitz haien aurreko hitzak:

açote (colpe)
denean (gaitça)
çaizquit (aiher)
fabore (hurco)
eta (turco)
baitçara (Iainco)
hegazteguian (nola)
(edo agian) Sion (nola)
nola (lurra)

Hauen azken silaba laburra omen denez gero, badakigu Oihenartentzat *-te, -an, -quit, -re, -ta, -ra, -an* (edo *-on*), eta *-la* silaba laburrak direla, gehienak bokalez amaituak, batzuk azkenean *n, t* dutenak.

Inork ez dezala pentsa, ordea, bertsoak bi silabako hitzez bukatzea debekatua dagoenik, ez eta hurrik eman ere. Buka daitezke, bai, dio, baina orduan horien lehen silabak laburra izan behar du edo bestela «anceps» —harritzekoa! orain arte hiru eta lau silabako hitzetan bakarrik zirela silaba dudazkoak uste genuen!—, eta aurrean silaba bakarreko hitza eduki —silaba bakarreko hitz guziak luzeak ote? Geroxeago ikusiko—, edo, gehiagotakoa bada, azkena luzea duena behar du izan. Eta argibide gisa honako lau exenplu hauek ematen ditu:

²⁷ *ibid.*, 36. or.

²⁸ Urkixok Vinsonengandik ikasirik 1690 data eman zion ale honi, beronek lehen orritxoak galdu zaizkiolarik ez baitu inon salatzen inprimatu zeneko urtea. Harizmendik eman zuen argitara, hirugarren edizioa datekeen hau, guziz aldaturik.

*Io ditut
 In dire
 harén bila
 haurrén ona.*

Beraz lau horietan *daktilo* bukaera izango genuke: -vv. Geure buruari galdetzen diogu: *Io* zergatik ote luzea? Silaba bakarrekoa delako bakarrik? Laster ikusiko dugu ezetz, Oihenartek onartzen baititu zenbait silaba bakarrek hitz bertsoaren kabuan. *In* agian silaba itxia delako. *Harén*-ek pixka bat harritzen gaitu, lehen (ikus *e.* araua) esan baitigu *guiçonáren* ahoskatzen dela. Bere neurtitzen batean gainera *haren* irakurtzen dugu bertso bukaeran; beraz *háren* ahoskatu-rik (ik. XIII,109; XX,28). Aldiz *haurrén* lehen (ikus *d.* araua) irakatsi digunarekin ongi dator, genitibo plurala baita.

Eta Haranbururen bertso-gintzari buruzko gogoeta hori honelatsuko hitze-kin amaitzen du: Are, silaba bakarrek hitzez ere buka daitezke bertso irrastakorrak, baldintza bat betez gero: ez daitezela izan naturaz nahiz jarreraz luzeak, honako hauek omen diren bezala: *Votz, motz, latz, gatz, hatz, hartz, çurtz, hitz, gaur, haur, bors, sey* eta beste asko. Garbi dago zergatik diren horiek Oihenartentzat silaba luzeak: bi edo hiru kontsonantez amaitzen direlako, ("jarreraz" luzeak), edo diptongoa daukatelako, ("naturaz" luzeak). Baina *io* hitzez buka al daitezke? Luzea dela irakatsi digu lehenxeago «*io ditut*»-, nahiz ez dakigun zergatik, ez baita naturaz ez jarreraz, dirudienez.

Baditu berak neurtitzetan barrena zenbait bertso silaba bakarrek hitzez amaituak: *lilitu da* (I,9); *baduta nic* (II,14); *Itsu hutsa nis* (III,5); *hura hilen d'eta su* (V,59), eta abar. Ez genuke kupidarik aitortzeko monosilabo horiek guziak laburrak direla, ez baitira naturaz ez jarreraz luzeak. Baldin laburrak badira, hala izan behar lukete *zu zira* bezalako moldean ere. Ala bertsoaren bukaeran *zu* labur eta beste molde horretan luze, *io* (ditut) bezala? Ala *io* ere labur, bertsoaren kabuan agertuz gero? Zergatik?

10. Horra Oihenartek euskal prosodiaz han eta hemen barreiatu-rik irakatsi eta nik ahal izan dudán bezain klarki txosten honetan bildu ditudanak. Honetaz guziaz neure erabateko iritzia eman behar banu, ez ledin lan hau geldí bestek esanen bilduma soilean, aski eszeptiko agertuko nintzateke eta Mitxelenaren hitzak egingo nituzke neure: «El balance final de estas consideraciones, negativo según toda apariencia, es...»²⁹. Eta aurreraxeago idatzi zituen beste hauek ere bai: «Lo peor de todo es que nunca estamos muy seguros de si el Oihenart que nos habla es el gramático o el métrico o retórico...»³⁰. Mitxelenaren dudak urrunago doaz: «queda por demostrar, y aquí no podemos hacer más que alguna indicación sumaria sobre ello, que Oihenart se atuviera siempre al

²⁹ Michelena, Luis, «Descubrimiento...», 162. or.

³⁰ *ibid.*, 163. or.

acento suletino real»³¹. Neure eszeptizismoaren erroak seinlatu ditut pixka bat, txostenean barrena haren esanetan aurkitu uste izan ditudan kontraesanekin topo egitean. Hemen laburki biltzekotan hauek izango lirateke:

Bat: Beste bi aginduak —alegia, egiteko elisioak beti eta erabiltzeko puntu aberatsa— berak Neurtitzetan inoiz huts egin gabe bete zituen bezala, ez dirudi hain zintzo bete zuenik hitzen azentuaren arabera bertsoaren kabuan puntua egiteko eman zuena. Irristakorrak omen diran hitzak ikusten ditugu, izan ere, emeak balira bezala silaba eta erdiko puntuaz berak errimarazten — eta hori ororen buru barkagarriagoa da, bere hitzez baliaturik puntu horren zailtasunaz goian esanagatik— eta, larriago dena, harrak omen direnak ere, silaba bateko puntua baizik zor ez omen zaienak, puntu beraz erabiltzen. Zertako da hortaz har, eme eta irristakorren arteko bereizkuntza, gero batzuk eta besteak puntu beraz erabil ahal badaitez? Aski zukeen agintzea erabil zedin beti silaba eta erdiko puntua, zeinnahi zelarik bertsoaren kabuko hitza, eta kito! Zertako berebat Etxepareri eta Ziburuko Etxeberriri, emeak omen ziren hitzak har gisa errimarazi omen zituztelako, eginiko irriak eta irainak, gero harrak omen zirenak eme gisa erabiltzea berari zilegi izan behar bazitzaion?

BI: Hasteko, irakasten zaigularik euskaraz hitz harrik ia batere ez dugula, gero esaten zaigu kasu plural guziek, nominatiboa salbu, azken silaba luzea dutela. Bego! Bestalde «anceps» edo zalantzazko omen den azkenurreko silaba lau silabako adizki batzuetan eta beste hiruko hitz arrunt batzuetan, *-ea*, *-ia*, *-ua*-z bukatuetan, aurki daitezkeela irakatsi ondoren, hara non esaten zaigun gutxiena ustean horiek ez ezik bi silabako hitzek ere izan dezaketela lehena dudazkoa. Modu berean behin eta birritan esan ondoren bertso irristakorra dela azken bi silabak laburrak eta azken hirugarrena luzea duena, batbatean azaltzen zaigu Haranbururen zenbait bertsoen kabuko neurri $\sim\sim$ honetako bertsoak ere irristakorrak direla. Azkenik agertzen digularik silaba bakarreko hitzak ere bertsoaren amaieran koka daitezkeela, naturaz ez jarreraz luzeak ez izatekotan, eta berak ipintzen dituelarik kokagune horretan *da*, *nic*, *nis*, *su* eta abar laburrak direlakoan, kontrara «io (ditut)» moldea honelakotzat $\sim\sim$ dauka eta horrenbestez *io* luzetzat.

Hiru: Oihenarten teoria erabat harturik, gauza batek uzten gaitu biziki harriturik: alegia, haren begi-lausoak, itsumenduak ez esatearren, bi puntu ez erreparatzeko. Nahiz zekien eta zioen ez zela orduarte euskaraz egin berak nahi bezalako bertsoarik eta euskal bertsoagintzan guziz berriak, berak asmatuak (?) zirela eman zituen arau eta legeak, halaz eta guztiz arau eta lege horien arabera iuiatzen du lehenagoko poeten obra, anakronismo larrian jautzirik. Hori batetik. Bestetik, bere ametsetako bertso eme eta irristakor dontsuak ez dauden lekuan ere aurkitu uste ditu noizbehinka; hisia hori du buruan. Hala nola, Haranbururen *Zazpi salmo penitenzial* haietan; eta «qui a tenu la bonne

³¹ *ibid.*, 153. or., 5. oinoharra.

methode» idatzi ondoren, hurrengo lerroan etsipenez aitortu beharrean aurkitzen da lizentziaz baliatzen dela maiz: «de quoy il se dispense souuent»³². Maiz ez, beti, Haranburuk ez baitu Oihenartek ikusi nahi duen metodorik; metodorik gabe txiripaz eta halabeharrez gertatzen zaion gauza baita hori, Haranbururi ez ezik Ziburuko Etxeberriri eta are Etxepare berari ere gertatzen zaion bezala; han-hemen nahi izan gabe eta bila ibili gabe puntu aberatsagoa irtetea, alegia.

Bukatzeko gauza bat garbi geldi ledin nahi nuke kritika ororen gaindik; Oihenartek ene ustez euskal poesigintza berriaren legeak ematen ez zuen asmatu, baina eman legeak bete gabe ere formaren aldetikako euskal poesigintza, berria ez ezik, ederra, zailua, txairoa sortu zuen, ia ondorengorik izan ez zuena damurik.

³² Oihenart, Arnaud, *L'Art...*, 36. or.